

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, 2004-2007 LANBIDE HEZIKETAKO EUSKAL PLANARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, 2004-2007ko Lanbide Heziketako Euskal Planaren (Plana) helburu, neurri eta adierazleei buruzko txostena mamitu du; baita, hori betetzeko gauzatutako ekintzei buruzkoa eta horren eduki ekonomikoko datuen analisiari eta gauzatutako egintzei ezargarria zaien araudia egokitzeari buruzkoa ere. Txostena Osoko kideen lau aldeko botorekin eta hiru abstentziorekin onetsi da.

Plana Lanbide Heziketarako Euskal Kontseiluak (LHEK) onetsi zuen 2004ko ekainaren 11n eta Eusko Jaurlaritzaren 2004ko azaroaren 9ko Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren erabaki bitartez. Aurrekariak 1997ko martxoaren 24an Lanbide Heziketarako Euskal Kontseiluak onetsitakoan ditu.

Plana jada abian diren egitura eta jarduerak aldaketa berrietara egokitzeko egiteko estrategiko modura ulertzen da, aurrez existitzen ziren planak eta prozesuak teknologia, merkatu, lehiakide eta baloreen eraldaketara doituz eta baliabide eta erreminta berrien bitartez gorabidean diren beste eremu batzuetara iristen saiatuz. Horretarako, 4 esparru estrategikotan, 44 helburu estrategikotan eta ezarri beharreko 155 neurritan bereizi zen.

Azterketa gauzatu ondoren, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Planaren hainbat alderdi mahairatu ditu, nahiz ondorio orokorra honetan oinarritzen den:

-Planean zehaztu diren helburuen izaera orokorrak eta bertan jasotako 155 neurriekin eskuratu asmo diren emaitzen zehaztasun ezak zaildu egiten dute horren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

-Ez du adierazle kuantitatibo ez kualitatiborik, ez eta egitekoak gauzatzeko eperik ezartzen eta ez du jarraipen iraunkorreko, ebaluaketa eta indarraldian zehar egokitzeko metodorik erakusten. Onartu zenean administrazioaren jarduera baloratzeko baliabideak ezarri behar ziratekeen, objektibotasuna, zehaztutako jomugen egokiera eta diagnosi-gaitasuna izango dutenak.

-Onartutako aurrekontua, Planarekin batera aurkeztutako 806.768 mila euroko guztizkoa egiten zuena, esparru estrategiko bakoitzean aurreikusitako helburu guztien balorazio globala eginez mamitu zen. Aipatutako aurrekontua ez da modu berezian ageri Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan Planaren iraunaldian besarkatzen dituen ekitaldiei dagokienez.

-Erakundeen sarea osatzen duten erakundeen finantza egoerek –baita Lanbide Heziketako ikastetxeenek ere-, ez dituzte Planari ezargarriak zaizkion gastuak identifikatu eta ez daude Plan horrez besteko diren berezko jardueraren garapenerako beharrezko diren gastu arruntetatik bereziak.

-Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzak ez du Plana ebaluatu eraginkortasun, efikazia eta ekonomia terminoetan, nahiz aztertutako aldian gauzatu diren egintzak Planaren helburuetara egokitzen saiatu den agiria dagoen.

Amaitzeko HKEEK adierazi du, aurreko mugaketen ondorioz, ezinezkoa dela Planaren helburuak lortzean eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia ebaluatzea eta berebat, ezinezkoa dela Planaren exekuzioan gauzatzeko gastu guztiak zehaztea.